

MAITASUNA EUSKARRI- CELEBRANDO TESTIMONIOS DE AMOR



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis

Sarrera

Egoera berezia bizi dugu, mingarria, zaila. Birusaren aurkako borroka etxean sartu eta ez ateratzera eraman gaitu eta horrela daramagu hainbat aste. Ia konturatu gabe, martxoaren erdi aldera, bizitza atzekoz aurrera geratu zitzaigun. Asko eta asko gaixorik, asko eta asko hilik, askok eta askok lana arriskuan eta, ondorioz, zalantzaz beteriko etorkizuna... Gure inguruan inoiz bizi gabeko egoera bizi dugu.

Eta hau horrela dela, egutegiko orriak kentzen jarraitzen dugu eta, konturatu gabe, Aste Santura, kristautentzat garrantzitsuena den astera, aste nagusira heldu gara. Beharbada oportetan joatea, egun batzuez atsedean hartzerako joatea... nahiko genukeen... Baina ez, aurten Aste Santua berezia izango da, guztiz desberdina. Ez da ospakizunik izango parroketan, ez dugu prozesiorik ikusiko kaleetan... Hainbeste kezka eta sufrimenduaren artean, Pazkoa ospatzeko gauza izango ote gara?

Hona hemen, egun hauek zentzuz betetzeko eta Jesusi bere azken ematean eta Gurutzerako bidean lagun egiteko baliagarri izan daitekeen materiala. Izan ere, Gurutzetik, gaur egun bizi dugun esperientzia hau argiz eta zentzuz bete ahal izango dugu.

Hauxe da proposamena: etxean, familian (orain, inoiz baino argiago senti dezakegu "etxeko Eliza" zertan datzan), denbora eskain diezaiozuela (ordu erdi, hiru ordu laurden) egunero otoitz egiteari, ospatzeari, Jesusi lagun egiteari, Jesusen laguntasuna onartzeari, gaur zer esaten digun jakiteko.

**#Etxean
Geratuko
Naiz**

“Maitasuna euskarri. Celebrando testimonios de Amor”

goiburua jarri diogu. Jesusek, bere bizitzarekin, bere burua Gurutzeraino emanaz, egundoko maitasun-lekukotasuna eman zigun, eman daitekeen handiena, Jainkoaren Maitasunaren lekukotasuna, gaitzaren, sufrimenduaren eta heriotzaren gainetik, beti Bizia loratzea dakarrena. Maitasun handi hori eguneroko bizitzaren euskarri diren eta egun zail hauetan bereziki agertzera ematen ari diren maitasunezko lekukotasunetan zehazten da. Ausar gaitezen ezagutzera!

Lagungarri hauek ez dira helduentzat, ezta haurrentzat ere, guztientzat baizik. Inguruabar hauetan, eskaintza orokorra egin nahi izan dugu, batzuetan batez ere helduei zuzenduta eta beste batzuetan hurrei. Horregatik, familia bakoitzean egokitu lagungarriak zuon egoeraren eta osaketaren arabera.

Hainbat argibide proposamena gauzatzeko:

- Lehenik eta behin, non egingo duzuen erabaki. Egunero leku beran. Leku horrek eroso, lasaia izan behar du, elkarrekin eta patxadaz egoteko aukera emango dizuen. Eguneko zein une den egokiena ere pentsatu behar duzue eta jarduera eguneroko ohituren artean kokatu.
- Egunero, erabakiz ekin jarduerari. Prest egon, giro egokia sortu, lasaitu, arreta eta kontua jarri, irakurtzen, hausnartzen, hitz egiten duzuen, bihotzera hel dadin. Itzali telebista une batez, ahaztu sakelakoa minutu batzuez... Arreta jarri eta entzun, sentitu eta bizi...
- Aukeratu duzuen lekuan, egunero hantxe izango den eta egingo dugunean arreta jartzen lagunduko digun sinboloa ipini. Esate baterako, kandela bat; elkartzen garenean biztuko dugu eta Berri Onaren argia sinbolizatzen du (etxeren batean kandelarik ez badago, gurutzea edo Biblia izan daiteke sinbolo hori).

Eguneroko sinbolo honez gainera, beste bat aukera dezakezue egun bakoitzerako.

- **Ostegun Santurako**, toalla. Jesusen Azken Afaria eta oinen garbiketa gogoratuko ditugu.
- **Ostiral Santurako**, gurutzea. Jesusen Heriotza Gurutzean, horixe da gogoratuko duguna.
- **Larunbat Santuan** erabiliko dugun sinboloa, eguneroko kandela ez biztea izango da. Larunbat Santuz Jesusen hilobiaren ondoan egongo gara, iluntasuna da nagusi.
- **Pazko Egunerako**, kandela biztuko dugu berriz ere eta ura jarriko dugu ontzi batean. Berpizkundea bizi berria dela ospatuko dugu.



Azkenik, zera eskatzen dizuegu: proposamen honen berri eman dezazuela eta zuon ustez mesedegarri izango dutenei helarazi diezaiozuela: adiskideei, senideei, ikaskideei, lankideei...

**Aste Santu ona opa dizuegu
eta Pazko Zoriontsua!!!!**

